

«Hiru gobernuek bakarrik, edo gizarte eragileek bakarrik, ezingo genuke hau antolatu»

Miren Dobaran

Elena Laka



Miren Dobaran Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea da eta Elena Laka Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria. Buru-belarri ari dira lanean Euskaraldiaren sustatzaile nagusiak. Biek azpimarratu dute aurtengoa euskararen erabileran ekiteko entrenamendua baino ez dela izango, hau da, jarraipena izango duela. Maila guztietako erakundeen arteko indar metaketak duen potentzialitatea nabarmendu dute.

Elkarriketa: Onintza Irureta Azkune
Argazkia: Dani Blanco

Zer ez da Euskaraldia?

Elena Laka: Euskaraldia ez da kanpaina bat, momentu batean egingo den ekitaldi bat. Gizarteari proposatzen diogun ariketa soziala da, ohiturak aldatzeko ariketa, arnas luzea eskatzen duena. Errotzea eskatzen du. Gure artean [Dobaran] begiratu dio] barre egiten genuen, eta onartzen badidazu, ez da dieta egitea, elikadura ohiturak aldatzea baizik. Ez da bikini-operazioa.

Miren Dobaran: Guk esaten dugu entrenamendua dela, erabileran eragin nahi badugu magia bidez ez dugu lortuko, batez ere ikusita zeintzuk diren gure hiztunen ezaugarriak. Hitztun berriak daude, bigarren hizkuntza erabiltzeko entrenamendua behar da. Aurtan norbanakoen entrenamenduarekin hasiko gara. Lan ildo horrek jarraituko du. Amaitu dira atxikimenduak, amaitu dira kanpainak, eta has gaitezen euskaraz egiten.

Euskaraldiak zer lortu nahi du?

E. Laka: Helburu nagusia erabilera bultzatzea da, inertziak apurtzea, ohiturak aldatzea, ez da aldeotasuna agertze kontu bat, argazki bat ateratzea ni Euskaraldiaren alde nagoela esateko. Horrek ondoko helburuak ekartzen ditu: hiztunak ohartaraztea, aktibatzea, ahaldundutzea. Euskaraldia oso inportantea da, baina baita nola dihardugun bidea egiten ere: kohesio sozialaren bitartez, elkarlanaren bitartez, erakundeak, gainerako eragileak, mugimendu soziala... Sortzen ari den elkarlana, energia, bultzada... bide hori ere helburu da.

M. Dobaran: Oinarria sendotu eta antolatu, erabilera bultzatzeko egongo diren ekintza eta ekimen guztietarako. Alde batetik, norbanakoa hasi entrenatzen, ingurune ahalik eta abegikorrena eta erosoena sortu beraientzako. Beste aldetik, erakundeak eta gizarte eragileen arteko elkarlanean entrenatu. Batez ere konturatu garelako orain arteko mugimenduan indar metaketak zer eragin eta indar daukan. Nik ez dut uste hau gobernutik bakarrik antolatu daitekeenik.

E. Laka: Ezta gizarte mugimendutik bakarrik ere. Hanka biak eta gainerako eragile eta erakunde guztiak behar di-

tugu. Erakunde diodanean ez bainaiz ari Eusko Jaurlaritzaz soilik, Euskal Herriko erakundeak daude hemen. Ezingo litzaiteke planteatu beste modu batera guk buruan daukagun halako tamainako ariketa soziala.

M. Dobaran: Euskal Herri osoan. Hiru gobernuak bakarrik, edo erakundeak, edo gizarte eragileak bakarrik, ezingo genuke, oso ahulak gara. Hau entrenamendua izango da, gero lan ildo bat izateko.

Herriz herriko lankidetzak dinamizatzatut dira, udalek eta gizarte eragileak, izan euskalgintzari zuzenean lotutakoak edo bestelakoak, elkarrekin egin dute lan. Zer moduzko harremanak izan dira?

E. Laka: Oso esperientzia desberdina daude. Herri batzuetan Euskaraldirako batzordeak sortu dira eta batzorde horien erdigunean euskara elkarteak daude. Beste askotan nukleo hori geruzetan zabaldu da, herriko gainerako eragileak, enpresek... hartu dute parte. Betiko nukleo horretatik kanpo askoz jende gehiagok hartu du parte. Oro har 400 udalerritik gora dira parte hartzen dihardutenak eta pozik gaude. Herri batzuetan udalak tiratu du gehiago, beste batzuetan herriko mugimenduek. Herri bakoitzak bilatu du bere formula, eta hori ere garrantzitsua da. Ez da goitik behera aginduta etorri den formula. Herriei proposatu zaie modu bat eta bakoitzak egokitu da.

M. Dobaran: Ikusi dudanagatik gizarte eragileak ere erakutsi dute barneratu dutela ardura konpartitua dela, hau ez dela euskara elkarten kontua, "horrek, euskarakoak...", edo hau ez dela hizkuntza politikaren kontua, "erakundeak egin behar dute". Gutxienez hausnarketa egin da: "Nik zer egin dezaket?". Norberak hartu behar du erabakia... Guretzat oso zaila zen horra heltzea, jendea esatea zer egin behar duen. Gobernuak ahalik eta ingururik erosoena jarri ahal dizu, baina ikastolako guraso taldean denak belarriprest edo ahobizi badira eta denek erdaraz egiten badute, hor zaila zen eragitea, eta gutxienez orain ikusten da jendeak baduela asmo bat hizkuntza ohiturak aldatzeko. Dena dela, ikusiko dugu zertan gauzatzen den.

Euskalgintzak geldialdi urteak izan ditu. Euskaraldia prestatzeko bideak balio izan al du eremu hori aktibatzen?

E. Laka: Euskara elkarteak ari bagara, duda barik bai, balio izan du elkarteak biziberritzeko. Ez zehatz-mehatz elkarreko bazkide direnak edo inguruan dabilen jendea, baizik eta ingurua asko zabaldu da. Orain arte horren aktibatuta edo euskalgintzan horrenbeste parte hartu ez duen jendea ari da parte hartzen.

M. Dobaran: Aurpegi berriak ikusten ari dira lehenengo herri batzarretatik eta adin guztietakoak gainera, ez gazteak bakarrik. Gaur egun jendea erakartzeari zaila da eta beraz pozgarria da.

Euskaraldia proposamen zehatza da. Eragileak izan dute marjinarik moldaketak egiteko? Ariketa mota egokia ez dela iruditu zaienak izan al dira?

E. Laka: Euskaraldiak marko bat ematen dio Euskal Herri osorako ariketa horri. Herri batzuetan egina dute. Egian [Donostiako auzoa], Lasarte-Oria, Agurainen oso ondo dakite zer den dinamika hori eta orain beste herrietara zabalduko dugu. Inork ez digu adierazi ez dagoela eroso modu horretan edo beste modu batean egingo luketela.

M. Dobaran: Tokian tokiko ezaugarrietara egokitu da. Getxon *irribizi* figura sortu dute. Herrian hiztun berri pilo bat dago, adin bateko gurasoek apustu sendoa egin zutelako haurrak ikastolara bidaltzeko. Gurasoei omenaldia egitea pentsatu dute. Ez dira belarriprest izatera ere iristen, baina uste dute giro eroso eta abegikorra sortzeko oso garrantzitsuak direla.

Tokian tokiko egokitzapenak oso onak dira, UEMAk egin duen moduan ahaldundutzearekin. Euskal Herria anitza da.

Ariketa babestua da, adostua, giro goxoa sortuko da, parte-hartzaileek elkar identifikatuko dute. Errealitatean, zoritxarrez, egoera gatazkatsuak bizi behar izaten dira euskaraz egiten saiatutako aldi batzuetan. Ariketa ausartagorik ez zenuten planteatu?

E. Laka: Euskaraldia errealitateari oso lotuta dago. Jendea ariketa eguneroko errealitatean egitea proposatzen dio-

gu. Marko bat ematen dugu, non egongo den gizarte hitzarmen bat. Gizarte hitzarmen hori zein da? Nik euskaraz dakit, bada lehenengo hitza euskaraz egingo dizut. Ez badakizu konpondu beharko dugu. Eta zu belarriprest bazara onartuko duzu nik zuri euskaraz hitz egitea. Eguneroko bizitzan izango da, nire kuadrillan, nire lantokian, eta nire kasuan Bilbora banoa baita epaitagian, medikuarenean edo erosketak egiterakoan ere. Azken horiek nire inguru goxotik kanpo daude. Zuk hartuko duzu parte edo ez, baina jakin dezazun Euskal Herri osoan hamaika egunetan Euskaraldian dihardugula eta esaten dizut nik txapa bat badaramat izango naitzela ahobizi edo belarriprest eta arauak hauek direla.

M. Dobaran: Helburua izango litzateke entrenamendua arau bihurtzea, modan jartzea. Normala izango litzateke belarriprestak niri gaztelaniaz egitea eta nik berari euskaraz egitea. Baina hemen ez da sekula egin eta figura oso arrotza da belarriprestarena. Entrenatu eta ikusten denean ez dela ezer gertatzen arau bihurtzeko apurka-apurka. Bestalde, gure asmoa ez da belarriprest beti belarriprest izatea.

Euskaraldiak erakunde publikoen ardura isildu dezake eta herritarrei euskara biziberritzearen zama jarri bizkar gainean?

E. Laka: Guk pentsatzen dugu alderantziz gertatuko dela. Herritar ahaldunduak bere eskubideen eta nortasunaren jabe izanda, edozein tokitara joan eta lehenengo hitza euskaraz egingo du, baita erakunde batera joanda ere. Azkenean, horrek beste dinamika batzuk sortuko ditu. Hitzun ahaldunduak ez dira egongo mahaiaren alde batean, barruan ere egongo dira. Gauza bat da erakundea, eta bestea bertan lan egiten dutenak. Aurreko esperientziak egin diren herrietan horrela gertatu da. Erakundeek ikusi dute premia, baztertu barik areagotu egin da premia.

M. Dobaran: Presio handiagoa egongo da, eskari handiagoa, gehiago mugitu beharko dugu. Baina bai, ulertzen dut lidergoa hartu beharko dugula gauza berriak esploratzeko. Erabilera eragitea ez da hain erraza. Adituek esaten digute erabilera eragiteko emozioekin, motibazioarekin lotu behar dugula hizkuntza, hau da, debekuekin eta derrigortuta ez dugula erakarriko jendea.

» **Miren Dobaran:**
“Aurpegi berriak ikusten ari dira lehenengo herri batzarretatik”

» **Elena Laka:**
“Ez da dieta egitea, elikadura ohiturak aldatzea baizik”

2019an erakundeetan eragin nahi duzuela esana duzue. Erakunde horiek zein funtzio beteko dute aurtengo Euskaraldian?

E. Laka: Aurten herri batzordeetan norbanakoek, eragileek, elkarteek hartu dute parte, baina baita enpresek, dendariak eta merkatariek ere. Enpresa batzuk eragile moduan ari dira jokatzeko, hau da, lantoki barnean ari dira bultzatzen ahobiziak eta belarriprestak.

M. Dobaran: Konpromiso handiak hartzen ari dira batzuk. Esate baterako, lehengo egunean azalera handiko enpresa ia gehienekin izan ginen Jaurilaritzan eta ikusi genuen haientzat Euskaraldiaren marka oso positiboa dela. Ez da normala azalera handiko hainbeste enpresa etortzea gurekin hitz egitera eta esatea, “guk Euskaraldian parte hartu nahi dugu”. Euskara planak ere badiutze, ez da bat-bateko gauza ere. Guk esan genien: badakizue zuen langileek seguruena parte hartuko dutela Euskaraldian, bada utzi txapak jarrita lan egiten. Eta beraiek baietz.

Bihar edo etzi egin beharko da, aurtengoan izan bada ahalegin indibiduala, planteatu beharko da ahalegin kolektiboa ere. Hartu beharko dira bestelako erabaki batzuk, lan munduan, horretarako giroa oso ona da.

Badakite Euskaraldia ontzat hartzeak zer esan nahi duen? Alegia, kontua ez dela Euskaraldiko kartelak jartzea? Bezeroak euskaraz artatu behar dira eta ez badute horrela egiten kexak izango dituzte.

M. Dobaran: Erantzun beharko dute, ikusten badute pertsonentzako hizkuntzarena gauza serioa dela eta kontuan hartu beharrekoa. Mila supermerkatu dauzkagu aukeratzeko. Horretaz jabetu beharra daukate. Beraien aldetik bada go aldaketa bat eta ariketa kolektiboa egitera goazenerako ematen du bada goela abiapuntu on bat. Ez da zerotik hasi behar. Ariketa serioa egiteko aukera dago.

Euskaraldian zer izango litzateke arrakasta?

E. Laka: Guk ez dugu nahi arrakasta, guk nahi dugu ahalik eta jende gehienak parte hartzea, oinarriak ipintzea, erroztzea, ez dugu *trending topic* bat nahi. Ariketak halako hondarra lagatzea nahi dugu, hizkuntza ohiturak aldatzea eta horiekin aurrera jarraitzea.

M. Dobaran: Arrakasta ariketa soziala ondo egitea da. Niri berdina zait 75.000 izatea 100.000 edo 200.000. Kontua da ondo ulertzea ariketa zein den, bakoitzak ondo prestatzea bere eremua, ingurukoak aktibatzen ohitzea, ondo egitea hamaika egunetakoa eta hamaigarren egunetik aurrera zer? Hori da arrakasta.

E. Laka: Ez dakit elkarrizketan nahikoa indar eman diogun, baina ariketa Euskal Herri osoan da. Sekula ez da egin.

M. Dobaran: Erakundeen arteko elkarlana izan da eta horrek ikaragarritzko indarra dauka. Esate baterako hiruko ituna egin dugu, Nafarroako Gobernua-rekin eta Euskararen Erakunde Publikoarekin. Nafarroan sartzea euskara sustatzeko programa batekin, Iparraldekoak etortzea. Hori ez dakigu zer den. Orain dela urte bi ezinezkoa zen. Euskaralgintzarekin eta gizarte eragileekin lortu dugun harremana, aitortza hori egitea. Gu apur bat gorago egon gara, baina udaletan ere lan handia egin da. Udalak eta gizarte eragileak batera aritu dira eta mesfidantzak gainditu behar izan dituzte.

Lortu dugun koordinazioa apurtzeak pena ikaragarria emango lidake. Ikusiko dugu zer gertatzen den datozen hainbat hauteskundetan. Aldaketak baldin badaude, konformatzen gara harremanak mantentzearekin eta bidea elkarrekin urratzen jarraitzearekin, zeren indar metaketa honekin ez dakit nora heldu gaitzek, baina gauza handiak egin daitezke. ■

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA

EUSKARALDIA

REKIN BAT

Euskaraldia nazioartera eramango dugu.

11 EGUN EUSKARAZ

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

www.euskaraldia.eus



AKUILARI

ZENBAT ETA AHOBIZI ETA BELARRIPREST GEHIAGO...

DESOREKA
ZAILTASUN GUTXIAGO

AHALDUN
ALDAKETA GEHIAGO

IZAN #AKUILARI

APLIKAZIOA JAITEI
QUINTASUNA 100

365 egunez
euskaraz gara!

azpeitiko udala
denon artean

EUSKARALDIA